

BESTELAKO XEDAPENAK

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

2402

EBAZPENA, 2026ko maiatzaren 27koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntzako ekintza estrategikoak finantzatzeko 2026ko ekitaldirako dirulaguntza-deialdiaren oinarriak.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazio Kontseiluak, 2026ko maiatzaren 27ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntzako ekintza estrategikoak finantzatzeko 2026ko ekitaldirako dirulaguntzen deialdia egiteko oinarriak onartu ditu, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Estatutuen 14.2 artikulua(n) letran xedatutakoarekin bat etorritik (apirilaren 29ko 93/2026 Dekretuaren bidez onartu ziren estatutuak).

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntzako ekintza estrategikoak finantzatzeko 2026ko ekitaldirako dirulaguntza-deialdia egiteko oinarriak. Oinarriak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazio Kontseiluak 2026ko maiatzaren 27ko bileran hartutako erabakiaren bidez onartu dira, eta ebazpen honen eranskin gisa jaso dira.

Bigarrena.– Aditzera ematea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituela ondorioak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazio Kontseiluak 2026rako dirulaguntzen deialdia egiteko oinarriak onartzeko hartutako erabakiak.

Hirugarrena.– Aditzera ematea 2026ko ekitaldirako dirulaguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazio Kontseiluaren erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 27a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusia,
FRANCISCO PEDRAZA MORENO.

ERANSKINA

Lehentasunez lanean dabiltzan langileei zuzendutako enplegurako lanbide-heziketa funtsezkoa da bizi osoko prestakuntza ziurtatzeko, langileak nahiz enpresak jakintzan oinarritutako gaur egungo gizartera egokitze eta langileen gaitasun profesionalari eusteko, Enplegurako Europako Estrategiaren esparruan garatzen diren produkzio-prozesuek izan ditzaketan aurrean.

Prestakuntza, langileei lan-bizitzan beharko duten kualifikazioa emateaz gain, lehentasunezko balio estrategiko bat da aldaketa teknologiko, ekonomiko eta soziala dakarten prozesuetan, eta, hori dela-eta, funtsezkoa da enpleguaren egonkortasuna eta gizarte-kohesioa lortzeko.

Deialdi honen xede den prestakuntza-programa hori egiteko, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretua du arau-euskarri, haren 2. artikuluan xedatzen baita lanbide-heziketaren sistemetako bat dela enplegurako lanbide-heziketa, enpresen eta langileen artean, langabeak (lehentasunez) nahiz lanean ari direnak izan, lehiakortasun- eta kualifikazio-beharrizanei erantzuteko prestakuntza bultzatzea eta zabaltzea xede duten tresna eta ekintzez osatua. Prestakuntza horrek, halaber, gizartea kohesionatzen eta ekonomia garatzen lagunduko du, jakintzan oinarritutako ekonomiaren esparruan.

Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 7.1 artikuluari jarraikiz –Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ditu eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen–, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak, eginkizunen eta jardun-eremuen artean, enplegu-politika du esleitu, eta «enplegurako lanbide-heziketa ere bai, dekretu horren 12.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Zeregin horretan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren lankidetzaz izango du, betiere zerbitzu horren erantzukizunen barruan».

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoa Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari atxikita dago, eta, besteak beste, enpleguko, enplegurako prestakuntzako eta autoenplegua eta enpresen sorrera sustatzeko programak kudeatzen ditu, apirilaren 29ko 93/2025 Dekretuaren bidez onartutako ente publikoaren estatutuen 4.f) artikuluan ezarritakoaren arabera. Egitasmo nagusietako bat enplegurako lanbide-heziketa ematea da, askotariko prestakuntza-eskaintzekin.

Halaber, Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuak ente publiko horri esleitzen dio Euskal Autonomia Erkidegoan enplegurako lanbide-heziketa programatzeko, kudeatzeko eta kontrolatzeko eskumena (9. artikulua).

Enplegurako lanbide-heziketaren arloko ekimenen artean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari dagokio langile okupatuak zuzendutako prestakuntza-eskaintzak garatzea eta erabaki honetan jasota dauden moduko proposamenak egitea.

Aipatutako dekretuaren 21. artikuluan, enpresek beren langileentzat programatutako prestakuntza arautzen da, enplegurako beste prestakuntza-ekimen batzuen artean, eta aurreikusten da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak iragarri ahal izango dituela, hobarien sistemaren bidez finantzatutako prestakuntza osatze edo ordezte aldera, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntzako ekintza estrategikoak egiteko laguntzak, ekintza horiek enpresa-proiektuari zuzenean lotutakoak direla ulertuta.

2021-2024ko Enplegu Plan Estrategikoak hauxe dio: «Trantsizio digital, energetiko-klimatiko eta sozio-demografiko hirukoitza gertatzen ari da, herrialdeen, negozioen, industriaren, gizartearen eta pertsonen etorkizuna eraldatzeko gaitasuna duena, baina enplegua sortzeko aukera ere izan daitekeena; horretarako, beharrezkoa da pertsona prestatuak izatea». «Kualifikazio handiko esku-

lana behar da, ondo prestatua eta moldagarria, eta biztanleria aktiboaren kualifikazioaren eta enpresen beharren arteko desorekak saihestea hiru trantsizioei lotutako profiletan.

Helburu hori dute erabaki honen bidez onartzen den deialdiaren oinarrien babesean finantzatutako prestakuntza-ekintzek. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei aukera ematen zaie beren langileen eskumenak eta kualifikazioak hobetzeko prestakuntza-ekintzak programatzeko.

Enpresek garatzen dituzten ekintza estrategikoak finantzatzera bideratutako laguntzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren 2026ko ekitaldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan daude jasota, eta 2. helburu estrategikoaren barruan sartzen dira: «Ekoizpen-sistemara moldatzen den enplegu erresilientea», bai eta 2.3 gako estrategikoan ere: «Etengabeko ikaskuntza, bizkor aldatuz doan eta lan- eta bizi-mailari dagokienez egokitzeko gaitasun handia izatea eskatzen duen egoera bati aurre egiteko estrategia gisa», zeina Jaurlearitza bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren 2026ko urtarrilaren 14ko Aginduaren bidez onartu baitzen eta www.lanbide.euskadi.eus webgunean argitaratu, hala agintzen baita Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.1 eta 7.1 artikuluetan.

Oraingo honetan, ekimen honek funtsezko zenbait aldaketa ditu. Lehenik eta behin, erabat elektronikoa izango da, administrazio elektronikoaren eskakizunekin bat etorritik, eta, horretarako, egoitza elektronikoaren sistemari lotutako kudeaketa-aplikazio berri bat jarriko da abian. Bigarrenik, modulu ekonomiko sinplifikatuen sistema bat sartzen da, kudeaketa arinagoa eta efizienteagoa ahalbidetuko duena enpresentzat eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoarentzat, hala laguntzak esleitzeko nola likidatzeko. Eta, azkenik, balorazio-irizpide objektiboagoen sistema berri bat ezartzen da, zenbait balorazio edo interpretazio bikoitzak baztertzen dituen.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiak proposatuta, zuzenbide pribatuko ente publiko horren Administrazio Kontseiluak, 2026ko maiatzaren 27ko bilkuran, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek egingo dituzten prestakuntzako ekintza estrategikoak finantzatzeko 2026rako dirulaguntzen deialdia egiteko oinarriak onartzen dira:

1. artikulua.– Xedea eta baliabide ekonomikoak.

1.– Oinarri hauen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek langileen gaitasunak eta kualifikazioak hobetzeko 2026rako eta 2027rako programatutako prestakuntza-ekintzak (prestakuntzako ekintza estrategikoak) garatzeko dirulaguntzak ematea 2026ko ekitaldian.

Enpresentzat jotzen da jarduera ekonomikoren bat egiten duen entitate oro, zeinahi direla ere haren izaera juridikoa eta finantzaketa-modua.

Ekintza estrategikoak zuzenean lotuta daude enpresaren proiektuari, eta premien diagnostiko batean edo antzeko dokumentu batean aintzat hartuta egon daitezke, zeinetan aurkezturiko ekin-tzen eta horiek hartuko dituzten langileen lehentasuna adierazten baita.

2.– Deialdi hau finantzatzeko, 3.000.000 euro izango dira gehienez; horietatik 1.500.000 euro 2026ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.500.000 euro, berriz, 2027ko konpromiso-kredituari.

Kopuru horiek % 25 handitu daitezke, hala badagokio, baldin eta indarreko legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak onartzen badira. Aldaketa horiek egiten badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez emango dira ezagutzera.

3.– Deialdi honetan jasotako laguntzak ez dira bateragarriak izango laguntzen onuradunek prestakuntza-ekintza berak egiteko beste dirulaguntza publiko batzuk jasotzearekin.

4.– Dena den, deialdi honetan jasotako dirulaguntzak etengabeko lanbide-prestakuntzako egungo estatu-ereduaren barruan aurreikusiriko hobariekin osagarriak direla bermatuko da.

– Ondorio horietarako, hobarien estatu-sisteman ekitaldirako dagoen kreditua kontsumitu beharko dute enpresek. Bestela, azken dirulaguntzatik kontsumitu ez den kredituaren kopurua deskontatuko da.

– Gainera, enpresa eskatzaileek bermatu beharko dute dirulaguntzaren xede diren ekintzek ez dutela hobaririk jasotzen estatu-ereduan.

Bikoiztasunak eta prestakuntza-ekintzen gainfinantzaketa saihesteko, deialdi honetan eskatzen dizkieten alderdi guztiak egiaztatu beharko dituzte eskatzaileek.

5.– Lehia-, publikotasun- eta objektibotasun-printzipioak kontuan izanda emango dira laguntzak.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Deialdi honetako dirulaguntzak Euskal Autonomia Erkidegoan dauden lantokietarako sustatzen diren prestakuntza-ekintzei aplikatuko zaizkie.

2.– Deialdi honen zehaztapenen arabera enpresak eta enpresa-taldeak izan daitezke dirulaguntzen onuradun, eta haietako langileek parte har dezakete prestakuntza-ekintzetan.

3.– Kolektibo hauek ere izan daitezke diruz lagundu daitezkeen prestakuntza-ekimenen parte-hartzaile:

1) Lan elkartuko kooperatibetako bazkide diren langileak, Langile Autonomoen Araubide Berezian (LAAB) kotizatzen dutenak, elkarte horietako estatutuek hori xedatzen badute.

2) Enpresari zuzenean loturiko langileak eta Legearen arabera besteren kontura kontratatu ezin direnak, nahitaez Langile Autonomoen Araubide Berezian kotizatu behar dutenak (administratzaileak, senitartekoak).

3) Gizarte Segurantzaren Nekazaritza Araubide Berezira (GSNAB) edo itsasoko langileen Araubide Berezira bilduriko langileak.

4) Langile autonomoak.

5) Lanik gabe badaude ere, egoera hauetakoren batean daudenak:

– Denbora partzalean lan egiten duten langileak (finko aldizkakoak), lanik egiten ez duten aldietan.

– Prestakuntzaldian daudenean langabeziara igarotzen diren langileak.

– Enplegu-etenaldietan enplegu-erregulaziora bilduriko langileak.

Salbuespen gisa, nazioartekotze-prozesuetan sartuta dauden enpresen kasuan, eta betiere behar bezalako justifikazioarekin, laguntzaren onuradun den enpresarekin loturiko enpresetako langileak ere parte hartu ahalko dute finantzaturiko prestakuntza-ekintzetan. Horri begira, hirugarren herrialdeetan benetan ezartzeko prozesuak dira nazioartekotze-prozesuak.

4.– Finantzaketa jaso ahalko dute 2026. urteko deialdi honetan, 2026ko urtarrilaren 1etik 2027ko ekainaren 30era bitarte garatzen diren prestakuntza-ekintzek. Nolanahi ere, gutxienez prestakuntza-ekintza bat 2026ko ekitaldian hasi beharko da.

5.– Aurkezturiko ekimenek beharrezkoa izango dute gutxienez 30 puntuko balorazioa merezi dutela egiaztatzea deialdi honen 9. artikuluan ezarritako irizpideen arabera. Bestela ez dute finantzaketarik jasoko.

3. artikulua.– Prestakuntza-ekintzak.

1.– Deialdi honen helburuetarako, prestakuntza-ekintza da parte-hartzaile guztientzat komunak diren helburu, eduki eta iraupen sistematikoko irakatsi eta ikasteko prozesua, enpresaren prestakuntza-proiektuan biltzen dena (Prestakuntza Plana).

Ez dira finantzatuko prestakuntza-prozesu bat (irakaskuntza-ikaskuntza) garatzea funtsezko osagaitzat ez duten ekintzak, hain zuzen ere, enpresaren ekoizpen-prozesuarekin zuzenean loturiko gaitasun eta kualifikazioak hobetzea xede duen prestakuntza-prozesu bat.

2.– Orokorrean, prestakuntza-ekintzek, hala banakakoek nola taldekakoek, gutxienez 6 ordu eta gehienez 270 iraungo dute parte-hartzaile bakoitzeko. Prestakuntzako jarduerak, modalitatea zeinahi dela ere, egunean gehienez 8 ordu iraungo dute.

3.– Modalitate hauetako batean eman behar dira prestakuntza-ekintzak: aurrez aurrekoa, teleprestakuntza edo mistoa.

A) Aurrez aurreko prestakuntzat jotzen da ikasgela batean irakasleek ikasle talde bati eza-guera berak eta aldi berean transmititzen dizkietenean, edozein motatako baliabide didaktikoak erabilia.

Prestakuntza-ekintzak aurrez aurre errazago emateko, aukera egongo da «ikasgela birtualaren» bidez emateko, osorik edo zati batean. Nolanahi ere, aurrez aurreko prestakuntza izango da berdin-berdin. Era berean, aurrez aurreko modalitatea sistema bimodala erabiliz ere egin daiteke, horrek irakasleari aukera emango baitio bertaratutako parte-hartzaile batzuei prestakuntza aurrez aurrekoa emateko eta beste batzuei, berriz, birtuala. Hartara, horietako batzuk gela batean egongo dira, eta, aldi berean, beste batzuk beste nonbaitetik sartuko dira prestakuntzan, denak batera, ikasgela birtualaren bidez.

Horretarako, bat etorri Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzu Zorro Komuna garatzen duen apirilaren 30eko 438/2024 Errege Dekretuaren 24.6 artikuluan xedatutakoarekin eta Enpleguaren otsailaren 28ko 3/2023 Legean ezarritako zerbitzu bermatuekin, ikasgela birtuala da ikaskuntza-prozesuan, baliabide teknologiko sinkronoak erabiliz, aldibereko komunikazioa, komunikazio zuzena, bi noranzkoko eta denbora errealekoa bermatzen duena, hezitzailearen eta prestakuntza-ekin-tzan parte hartzen duten pertsonen artean.

Ikasgela birtualaren bidez ematen den prestakuntza egituratu eta antolatu egin behar da, une oro bermatzeko konektibitate sinkronizatua dagoela prestatzaileen eta parte hartzen duten ikasle-reen artean, bai eta komunikazioak noranzko bikoak direla ere.

Aurrez aurreko prestakuntza ikasgela birtualaren bidez ematekotan, aplikazioak berak sortu-tako konexio-erregistro bat izan beharko du ikasgela birtualak. Erregistro horrek ikasgelan parte hartu duten ikasleak identifikatuko ditu, zehaztuz noiz eta zenbat denboraz konektatu diren (prestakuntza-ekintza bakoitzean); era berean, mekanismo bat izan beharko du eskolak dirauten bitartean, kontrol-organoak konektatuta egon ahal izateko, 16. artikuluan aurreikusitako jarraipen- eta kontrol-jardueren ondorioetarako. Hori ezinezkoa bada, parte-hartzailearen erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko da parte-hartzea. Deklarazio hori behar bezala egiaztatutako arazo teknikoak dauden kasu jakinetan besterik ezingo da erabili, eta, nolanahi ere, arazoa tarte batekoa izatekotan.

Aurrez aurreko modalitatearen zatia ikasgela birtual bidez edo irakaskuntza bimodaleko sistema bidez egiten denean, ezagutzak transmititzen direla eta prestakuntza-ekintza edo -taldeetan aurreikusitako helburuak eta edukiak garatzen direla bermatu beharko da.

B) Teleprestakuntzat jotzen da parte-hartzaileak ikaskuntzaren erritmoak, teleprestakuntzako plataformaren bidez, bere denborara egokitzen dituen; tutoreak/irakasleak izango ditu, zalan-tzak argitzeko eta aurrerapausoak egiaztatzeko. Modu horretan, erabilitako materialen edukiak osatu edo sendotuko ditu.

Teleprestakuntzako modalitatetzat jotzen da prestakuntza-ekintzak eskatzen duen aurrez aurreko parte iraupen osoaren % 20 edo gutxiago denean.

Teleprestakuntza-modalitatean irakasteko eskakizunak:

3.3.B.1.– Edukiei dagokienez:

Teleprestakuntzako eta prestakuntza mistoko modalitatean prestakuntza-ekintza bat egiteak irakaskuntza-ikaskuntza prozesu bat dagoela bermatu behar du, aurrez aurreko modalitateko ekintzek bezala. Teleprestakuntzak parte-hartzaileen, tutore-prestatzaileen eta beste toki batean kokatutako baliabideen arteko elkarreragina eskatzen du.

Pdf formatuko edo beste formaturen bateko edukiak deskargatze hutsa ez da teleprestakuntza.

Parte-hartzailea edukietan/ikasgaietan jardun dela erregistratuta utzi behar da.

Parte-hartzaileek egingo duten prestakuntza-ekintzak prestakuntza-erakundeak helburuak lortzeko egokitzen jotzen dituen iraupena izango du, eta hark jarritako ebaluazio-probak gainditu beharko dituzte.

Behar bezala arrazoituko da ekintzarako proposatutako teleprestakuntzako ordu kopurua.

3.3.B.2.– Tutoretza-jarduerei dagokienez:

Teleprestakuntza ikaskuntza sistematizatua dakarten euskarri didaktikoekin eman beharko da, eta nahitaez laguntza tutorialarekin osatuko da.

Ezin ditu tutore berak egin espezialitate desberdinetako prestakuntza-ekintzen tutoretzak. Egi-tekotan, haren gaitasunak eta eskura duen laguntza teknikoa zehaztuko dira (adituak).

Tutore-prestatzaileak prestakuntza-prozesuan zehar egindako jarduera guztien erregistroa eramango du, parte-hartzaileek egindako kontsulten eta zalantzen argitzea bere eginkizuneko jarduera espezifikotatik bereiziz. Tutore-prestatzailearen esku-hartzeak bat etorri behar du tutoreen jarduketaren plangintzarekin eta prestakuntza-ekintzaren programazioarekin.

3.3.B.3.– Jarraipen- eta ebaluazio-kontrolari dagokienez:

Ebaluazio-probak egiteko, parte-hartzaileak proba horiek sortzen dituzten edukietan sartu behar du alde zuzenetik, jarraipenaren eta ebaluazioaren plangintzan ezarritakoa kontuan hartuta.

Tutore-prestatzaileak bermatu behar du proba horiek prestakuntza-prozesua garatzeko sekuentzia egokiaren arabera egiten direla.

Parte-hartzaile bukatutzat hartzeko, konexio-denboraz gain, prestakuntza-ekintzarako ezarritako aldizkako jarraipen- eta ebaluazio-kontrolen % 75 ere egin behar izan ditu gutxienez.

3.3.B.4.– Teleprestakuntzako plataformak sortutako erregistroei dagokienez:

Informazioa hobeto tratatzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak teleprestakuntza-plataformak sortutako eta erregistratutako datuak euskarri informatikoan eman diezazkioten eskatuko

du (kalkulu-orria edo antzekoa): parte-hartzaileen jarduera-datuak (lehen eta azken sarbidearen datak, konexio-orduen kopurua, egun desberdinen kopurua), ebaluazio-proben datu osoak (burutze-data, erabilitako denbora...) eta egindako tutoretzei eta erantzundako kontsultei buruzko datu osoak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren web-orrian erantsitako ereduaren arabera.

Teleprestakuntza-plataformak ikasleak eta haiek egiten dituzten jarduera guztiak erregistratu behar ditu. Halaber, txostenak egitea erraztuko du, parte-hartzaileak ikastaro bakoitzaren elementu eta jarduera bakoitzetik pasatu dela jasotzeko, eta teleprestakuntza-plataforman egin dituzten klijen arteko denbora biltzeko.

Deialdi honi begira, teleprestakuntzat hartuko da baliabide-zentroetan emandako prestakuntza. Baliabide-zentrotzat jotzen da banakako ekipamendu didaktikoa duen instalazioa: parte-hartzaileak hara joaten dira, hainbat euskarriren bidez prestakuntza eskuratzeko, eta beren zalantzak argitzeko tutoretza-mota bat ere edukiko dute.

C) Modalitate mistotzat jotzen da prestakuntza-ekintza bera emateko aurrez aurreko modalitatea eta teleprestakuntza konbinatzen duena.

Prestakuntza mistotzat hartzeko, modalitate bakoitzeko edukiek argi eta garbi bereizita eta zehaztuta egon behar dute, eta prestakuntza-ekintza finantzatzeko batu behar dira aurrez aurreko orduetarako aplikatutako moduluak eta teleprestakuntzako orduetarako aplikatutakoak (tutoretzak zeinahi modalitatetakoak direla ere).

Modalitate bakoitzaren berezko eskakizunak ere bete beharko dira, dagokion zatian.

4.– Prestakuntza-ekintza bakoitzaren parte-hartzaile kopurua zehazteko, prestakuntzaren efizientzia- eta efizientzia-irizpideak aplikatuko dira, enpresen finantza-baliabideen optimizazioa eta premia espezifikoaren estaldura bateragarri egiteko.

5.– Langile batek gehienez 270 prestakuntza-ordu jaso ditzake, salbu eta ekintza bakarrean parte hartzen bada eta ekintza horren muga salbuespentzat hartu bada, artikuluan honen 2. apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

6.– Enpresek berek antolatu ahal izango dute beren langileen prestakuntza, eta beren baliabideak erabili prestakuntza emateko, edo, bestela, baliabide horiek kontratatu ahal izango dituzte % 100ean.

Enpresa-taldeek kasuan, bakoitzarentzat banaka antolatu ahal izango da prestakuntza, edo haietako batzuk edo guztiak elkartuta. Elkartuz gero, taldeko zeinahi enpresak bere kabuz antolatu ahal izango du bere taldeko langileen prestakuntza, eta, prestakuntza emateko, bere baliabideak erabili ahal izango ditu edo, bestela, baliabide horiek guztiak kontratatu (% 100).

Halaber, prestakuntzaren antolaketa kanpoko entitate baten esku utz dezakete enpresek, irailaren 9ko 30/2015 Legearen 12. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Kasu horretan, egiaztatutako prestakuntza-entitate batek emango du prestakuntza, edo aipatutako legearen 15. artikuluan aipatzen den administrazio publiko eskudunak gaitutako prestakuntza-entitateen erregistroan inskribatutako batek. Lanbide-jarduera jakin batzuetan jarduteko gaitzen duen prestakuntza emateko beste administrazio batzuek homologatutako entitateak inskribatutzat edo egiaztatutzat joko dira. Prestakuntza antolatzeko eta emateko jarduerak ezin izango dira azpikontratatu. Ez da ulertuko prestakuntzaren antolaketa kanpoko entitate baten esku utzi dela, baldin eta dirulaguntza zuzen aplikatzeko behar den administrazio-kudeaketako eginkizunetara mugatzen bada entitate horrek egin behar duen jarduera.

Enpresak kanpoko agenteak kontratatzen dituzenean prestakuntza-ekintzak egiteko, gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko ditu, hornitzailearen aukeraketa eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideen arabera izan dela bermatzeko, kontratuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratu buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitako kontratu txikien zenbatekoa gainditzen duenean, salbu eta ezaugarri bereziak direla-eta merkaturan zerbitzua ematen duen behar adina entitate ez badago. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

Nolanahi ere, 6. apartatuan aurreikusita ez dagoenerako, zuzenean aplikatu beharko da Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean xedatutakoa.

7.– Prestakuntza-ekintzek barne-prestakuntza biltzen dutenean, osorik edo zati batean, prestakuntza hori ikaskuntza-prozesu sistematizatua izateko moduan diseinatu eta egituratu beharko da aldez aurretik.

4. artikulua.– Entitate onuradunak.

1.– Deialdi honetako laguntzak 2. artikuluan aipatutako enpresek eskatu ahalko dituzte, baldin eta 35 langileko edo gehiagoko plantilla badute.

Salbuespen gisa, diruz lagundu daitezke langile-kopuru horretara iristen ez diren enpresek aurkezturiko planak ere. Kasu horietan, enpresak prestakuntza-plana burutzeko zer-nolako gaitasuna duen aztertuko du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak, eta arrazoiak azalduta ebatziko.

2.– Plantillan 50 langile edo gehiago dituzten enpresa-taldeek ere laguntzak eskatu ahalko dituzte. Enpresa-taldetzat hartuko dira sozietate guztietan haien artean lotura hauetako bat dutenak gutxienez:

a) Enpresa batek beste enpresa baten akziodunen edo bazkideen boto-eskubideen gehiengoa izatea.

b) Enpresa batek beste sozietate baten administrazio-, zuzendaritza-, edo kontrol-organoko kideen gehiengoa izendatu edo errebokatze eskubidea izatea.

c) Enpresa batek beste batean eragin dominatzailea edukitzeko eskubidea izatea, harekin sinatutako kontratu baten edo bigarren enpresaren estatutu-klausula baten ondorioz.

d) Enpresa bat bestearen akziodun edo bazkidea izatea, eta, berak bakarrik kontrolatzea haren akziodunen boto-eskubideen gehiengoa, bigarrenaren beste akziodun edo bazkide batzuekin egindako akordioaren ondorioz.

Kasu horretan, taldea osatzen duten enpresetako edozein izango da eskabidearen titularra, baina prestakuntza-planean parte hartzen duten enpresa guztiak izango dira onuradun.

3.– Dena den, enpresa berak ezingo du laguntza-eskabide bat baino gehiago aurkeztu deialdi honen barruan. Eskabide bat baino gehiago aurkezten bada, lehenengo aurkezten dena bakarrik hartuko da kontuan.

4.– Ezingo dira onuradun izan egoera hauetako batean diren entitateak:

a) Delitu hauetakoren bat egiteagatik kondenatua izana: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

b) Epai edo administrazio-ebazpen irmo batek kondenaturik edo zehaturik egotea eta horren ondorioz dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galdu izana eta kondena- edo zehapen-epaia igaro gabe egotea.

c) Hartzekodunen borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaera egin izana, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratu izatea, hartzekodunen konkurtsoan deklaratu egotea (salbu eta konkurtso horretan hitzarmen batek efikazia lortu badu), esku-hartze judizialaren menpe egotea edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta egotea, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe egonik.

d) Administrazioarekin egindako edozein kontraturen amaiera irmoa eragin izana, eta suntsiarazpenaren arrazoiaren errudun deklaratu izana.

e) Merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak badira, Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean edo Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako bateraezintasunen araubideko egoeraren batean egotea edo Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat betetzea, arau horretan edo gai horiek arautzen dituen araudi autonomikoan ezarritakoaren arabera.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen diren, dirulaguntza eman eta ordainketa bakoitza egin baino lehen. Nolanahi ere, eskatzaileak berariaz egin diezaioke aurka egiaztatze-lan horri, eta, halakorik egiten badu, ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu betekizun hori betetzen duela frogatzeko.

f) Egoitza fiskala erregelamenduz zerga-paradisua gisa sailkatutako herrialde edo lurralde batean izatea.

g) Dirulaguntzei dagokienez, ordaindu gabe izatea itzulketa-betebeharrak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (2023ko otsailaren 17ko EHAA). Egoera horretan gertatzen den edozein aldaketaren berri eman beharko dute, emandako dirulaguntza guztiz justifikatu arte.

h) Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera kentzen dien zigor-zehapena edo administrazio-zehapena ezarrita izatea, honako hauek barne:

– Sexuagatiko diskriminazioa eragiteagatik, edo Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.1 artikuluan jasotako diskriminazio anizkoi-tza eragiteagatik.

– Ebazpen irmo baten bidez zehapen osagarri bat jasotzeagatik, Lan Arloko Arau Hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 46.1.b) eta 46 bis 1.b) artikuluetan xedatutakoaren arabera.

i) Laguntzak edo dirulaguntzak jasotzea eragozten dion legezko kausa bat edukitzea, hauek barne:

– Ez edukitzea berdintasun-planik indarrean, nahiz eta enpresa Estatuaren araudiaren arabera horretara behartuta egon.

– Ez edukitzea ezarrita neurrikeri sexuz jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta haien aurka borrokatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunaren

arloan Estatuak dauzkan legeek ezarritakoaren arabera, 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan.

– LGTBIfobia egitea, bultzatzea edo sustatzea, konbertsio-terapiak sustatzea edo egitea barne.

j) Zehapena ezarrita izatea arau-hauste astun edo oso astun batengatik, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitakoaren arabera, administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.

k) Desgaitasuna dutenentzat lanpostuak gordetzeko lege ezarritako kuota ez betetzea, edo bestela, hori betetzeko ordezko neurriak hartu gabe egotea.

l) Elkarteen kasuan, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. paragrafoetan aurreikusitako debeku-kausen eraginpean egotea.

m) Legez kontrako egintza penalen zentzuzko zantzuak aurkitu zaizkiola-eta inskripzio-prozedura administratiboa eten zaion elkarre bat izatea, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuta, dagokion erregistroan inskribatzeko aukera ematen dion ebazpen judizial irmorik ez dagoen bitartean.

n) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan xedatzen diren gainerako egoeraren batean egotea.

ñ) Enpresa-deslokalizazioko kasuren batean egotea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

o) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetan, eta eskatzailea irabazi-asmoa duen pertsona fisikoa edo juridikoa bada, zuzenbide publikoko entitate ez dena, ez betetzea Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluen 3 bis apartatuan aurreikusitako baldintzetan. Eskakizun hori betetzat joko da abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeen betetze-maila Enpresak Sortu eta Handitzeko irailaren 28ko 18/2022 Legearen azken xedapenetako seigarreneko d) letrako bigarren apartatuan aurreikusitako ehunekoaren parekoa edo handiagoa denean (aurreko ekitaldian hornitzaileei egindako ordainketa guztietatik ordaindutako fakturen % 90, abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako gehieneko epea igaro baino lehen).

5.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak ez badu egiaztatzen 4. apartatuan xedatutako eskakizunen bat, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatu beharko da. Adierazpen hori eskabide-inprimakian dago. o) apartatuko eskakizuna egiaztatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

– Pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileak kontabilitate-araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkezteko modurik badu, 38/2003 Legearen 13.3 bis artikuluko a) apartatuan aipatutako ziurtagiria aurkeztu beharko du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak emandako eredia erabiliz.

Ziurtagiri hori dirulaguntza-eskabidearekin batera aurkeztu beharko da.

– Eskatzaile horrek ezin badu aurkeztu galdu-irabazien kontu laburtua, kontabilitate-araudiaren arabera, 38/2003 Legearen 13.3 bis artikuluko b) letran aipatzen diren dokumentuen bidez, hau da, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen auditore batek emandako ziurtagiria-

ren bidez, letra horren 1. zenbakian eskatutako edukiarekin; edo ziurtagiri hori ematea ezinezkoa bada, Prozedura Adostuen Txostenaren bidez, aipatutako letraren 2. zenbakian eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko Erregelamenduaren 22 bis artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak, hala badagokio, dirulaguntzak emateko ebazpenak eman aurretik eskatuko die entitate eskatzaileei aurreko paragrafoan aipatzen diren dokumentuak aurkezteko.

5. artikulua.– Eskabideen aurkezpena.

1.– Deialdi honetako dirulaguntza-eskabideak elektronikoki bete beharko dira, egoitza elektronikorearen bidez.

Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa (izapidetze elektronikorako jarraibideak ematen dituen) helbide honetan eskuratu daiteke: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0136810>

Eskabideak ordezkari baten bidez ere izapidetu daitezke elektronikoki. Horretarako, ordezkari-tza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ahalordetzeen erregistro elektronikoa in-skribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkariek>

Orobat, prestakuntzako ekintza estrategikoak Lanbideren webgunean gaitutako aplikazio infor-matikoaren bidez kudeatuko dira: www.lanbide.euskadi.eus

2.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

6. artikulua.– Eskabideak egiteko baldintzak.

Dokumentu hauek jaso beharko dira dirulaguntza-eskabidean:

1.– Prestakuntza-premiak detektatzeko azterlana edo azterketa; finantza litekeen presta-kuntza-planean jasotako ekintzak adieraziko dira, baldin eta azterlan hori eginda badago.

2.– Garatu beharreko prestakuntza-ekintzen deskribapena, lehentasunak ezarri; hau da, ekin-tzak gauzatzeari dagokionez lehentasunen ordena ipiniz, ekintza bakoitzaren izena, iraupena eta parte-hartzaile kopurua adierazita. Edonola ere, honako hauek jaso beharko dira:

a) Zer talderi zuzenduta dagoen, kategoria edo talde profesionalen, lan-egoeraren eta Gizarte Segurantzarako afiliazio-araubidearen arabera.

b) Prestakuntza-ekintzek zer kostu izango duten, baldin eta ezarritako modulu ekonomikoak baino txikiagoa bada.

c) Prestakuntza-ekintzak egiteko zer egutegi eta zenbat lanordu aurreikusi diren.

d) Prestakuntza-ekintzak emateko zer prestakuntza-entitate, toki, instalazio eta baliabide aurrei-kusi diren.

e) Parte-hartzaileak hautatzeko zer irizpide erabiliko diren.

f) Harremanetarako pertsona nor den eta programaturiko prestakuntza-ekintzen jarraipena nola egingo den, eta prestakuntza-programak ebaluatzeko zer irizpide eta metodologia erabiliko diren.

3.– Erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko EAEn dauden lantokiei dagokienez 2025eko eki-taldian enpresak edo enpresek ordainduriko lanbide-prestakuntzako kuotaren urteko zenbatekoa.

4.– Erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko entitate eskatzaileak ez duela dirulaguntzen itzulketengatiko zorrik EAEko Administrazioa eta haren organismo autonomoekiko burutzapen-aldian.

5.– Erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko entitate eskatzaileak ez duela dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen penalik nahiz administratiborik, eta ez duela horretarako desgaitzen duen lege-debekurik, sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

6.– Beharrezkoa bada, legearen edo hitzarmen kolektiboaren arabera prestakuntzarako dagokion inbertsioa egin izana egiaztatzen duen ziurtagiria, baita justifikazio-dokumentuak ere. Dokumentu horiek behar bezala sinatuta eta zigilatuta aurkeztu behar dira.

7.– Lantokien zerrenda, lantoki bakoitzak zer ekintzatan parte hartzeko asmoa duen, zer herri-tan kokatuko den, langileen eta benetako parte-hartzaileen guztizko kopurua eta ordezkari-tza sindikalik baduen edo ez zehaztuta.

8.– Erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko enpresak ez duela eskatu borondatezko konkurtso-deklaraziorik, ez dela kaudimengabe jo ezein prozeduratan, ez dela konkurtsoan deklaratu-ta (eraginkortasuna hitzarmen bidez bereganatu badu salbu), ez dagoela epailearen esku-hartzearen mende edo ez dagoela desgaituta Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen ar-bera, konkurtsoa sailkatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldi hori oraindik amaitu gabe egonik.

9.– Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak osagarriak direnez estatu-ereduan aurreikusitakoekin eta dirulaguntzen/hobarien bikoiztasuna eta laguntzako prestakuntza-ekintzen gainfinantzaketa saihestearren, eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, non adieraziko baitu ezein kasutan ere ez dituela ekintza edo parte-hartzaile berak aurkeztu edo aurkeztuko esta-tuko sisteman bilduriko hobarien sistema eta jarduera bererako; horrez gain, adierazpen horretan beste administrazio publiko edo entitate publiko zein pribatu batzuek emandako beste diru-sarrera osagarrien berri eman beharko du, eta horien zenbatekoa adierazi. Ondoren gertatzen den alda-keta oro jakinarazi beharko zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari.

10.– Langileen legezko ordezkari-tzarako informaziorako eta kontsultarako dokumentua (3A eranskina, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren egoitza elektronikoa eta web-orrian eskuragai egongo da), behar bezala zigilatua eta sinatua.

11.– Nazioartekotze-prozesuetan sartuta dauden enpresen lotura dokumentu bidez egiaztatzea.

12.– Erantzukizunpeko adierazpena, enpresa eskatzailearena, dirulaguntza emandako dataren aurreko hiru urteetan jasotako «minimis» laguntzei buruzkoa, bat etorritik deialdi honen 23. artikuluan xedatutakoarekin.

13.– Kanpoko zerbitzuen kontratazioaren kasuan, kontratazio-proposamena, hala badagokio, hiru eskaintza eskatu direla eta aukeraketa egin dela justifikatuta. Dokumentazio hori geroago aurkeztu daiteke, baina prestakuntza-ekintza hasi aurretik, betiere.

7. artikulua.– Langileei eman beharreko informazioari eta egin beharreko kontsultari buruzko eskakizunak.

1.– Eskabidea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari aurkeztu aurretik, eskatzaileak infor-mazioa emango dio Langileen Legezko Ordezkari-tzari, egikaritzeko dirulaguntza lortu nahi den prestakuntza-ekintzei buruz. Horretarako, aurreko artikuluko 5., 6. eta 7. apartatu-tako agirien kopia osoa emango du, eta eskabidearen 3A eranskina betetzeko eskatuko du (informatika-apli-kazioan eskuragai).

2.– Langileen Legezko Ordezkaritzak 15 eguneko epea izango du txostena egiteko, dokumentuak jasotzen diren egunetik aurrera. Txosten hori (3C eranskina, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren egoitza elektronikoa eta web-orrian izango da eskuragai) enpresari eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari helarazi ahalko die Langileen Legezko Ordezkaritzak.

Txostena enpresari bakarrik bidaltzen bazaio, enpresak sartu beharko du egoitza elektronikoa-ren bidez, ezarritako epe berean.

3.– Horretarako, Planean parte hartzen duten lantoki guzti-guztiei dagokiena izango da Langileen Legezko Ordezkaritza. Enpresa-batzordeek edo langileen ordezkariak eman behar dituzte 3A eranskinak, daudenen % 51k gutxienez.

Lantoki batean edo batzuetan ordezkaritza sindikalik ez dagoela adieraztea ziurtagiritzat joko da, xede guztietarako.

4.– Prestakuntza-ekintzak hasi aurretik, Enpresako Langileen Ordezkaritzari igorri beharko zaio prestakuntza-ekintza horietako parte-hartzaileen zerrenda.

Hiru hilean behin, prestakuntza-planaren egikaritzeari buruzko informazioa emango diete enpresen langileen ordezkariak.

8. artikulua.– Laguntza zehaztea.

1.– Jasotzen den gehieneko laguntzak, guztira, ezin izango du gainditu Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen lanbide-heziketako kuotaren urteko zenbatekoa bider 1,5 –250 langile baino gehiagoko enpresen kasuan– eta bider 5 –250 langile arteko enpresen kasuan–, enpresa kooperatibetan izan ezik, baldin eta enpresa horien langile bazkideek Langile Autonomoen Araubide Berezian kotizatzen badute; kasu horretan, hauxe izango da gehieneko guztizko laguntza kalkulatzeko kontuan hartuko den zenbatekoa: enpresak dauzkan langileen kopurua bider enpresa sortu berrientzat oro har ezarritako langileengatikoa batez besteko hobaria (65 euro) eginda ateratzen den kopurua.

Laguntza kalkulatzeari begira, entitate onuradunaren Euskal Autonomia Erkidegoko plantilla hartuko da kontuan.

2.– Eskatzaile bakoitzari ematen zaion dirulaguntza izango da gehieneko laguntza, eta honela zehaztuko da:

a) Ordu kopurua bider parte-hartzaile kopurua eta dagokion moduluaren zenbatekoa.

b) Ondoren, planaren balorazio teknikoa egingo da, zeinetan zehaztuko baita gehieneko laguntza finantzarriaren ehunekoa, tarte hauen arabera:

– 30 puntutik 69 puntura: % 60.

– 70 puntutik 79 puntura: % 70.

– 80 puntutik 89 puntura: % 80.

– 90 puntutik 100 puntura: % 90.

c) Baldin eta deialdi hau finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak ez badira nahikoak eman beharreko dirulaguntza guztiak estaltzeko, hainbanaketa bidez banatuko dira, eta, horretarako, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoen zenbatekoak funts-mugarik gabe emango liratekeen dirulaguntzen zenbatekoaren gainean duen ehunekoa aplikatuko da.

9. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

Irizpide hauei jarraikiz burutuko da planen balorazio teknikoa:

I.– Lehentasun-irizpide orokorrak: gehienez 35 puntu.

1.– Ezaugarri hauek dituzten prestakuntza-ekintzek izango dute lehentasuna:

a) Prestakuntza-ekintzen jatorriari eta izaerari dagokienez: 10 puntu, gehienez.

Atal honetako azken puntuazioa baiezko erantzuna jaso duten enuntziatuen kopuruaren arabera zehaztuko da, dirulaguntzaren xede diren prestakuntza-jarduerekin lotuta.

– Izaera estrategikoa duten ekintzak, prestakuntza-beharren azterketaren batean oinarrituta.

– Lanaldia murrizteko, birmoldaketako edo kontratuak aldi baterako eteteko prozesuen ondoriozko ekintzak.

– Lan-munduan euskararen erabilera normalizatzeko helburua duten ekintzak.

– Metodologiarengatik, edukiarengatik edo beste edozein arrazoiarengatik Enplegurako Prestakuntzarako berritzaileak diren ekimenak.

Baiezko erantzuna jaso duten enuntziatuen kopuruaren arabera esleituko dira puntuak, eskala honen arabera:

Baiezko enuntziatu 1: 2 puntu.

Baiezko 2 enuntziatu: 4 puntu.

Baiezko 3 enuntziatu: 8 puntu.

Baiezko 4 enuntziatu: 10 puntu.

b) Prestakuntzaren hartzaileei dagokienez: gehienez 35 puntu:

– Enpresa txiki eta ertainetako langileen lehiakortasuna eta enplegagarritasuna hobetzeko helburua izatea. Alde horretatik, lehentasuna izango dute EAEko enpresa txikiek eta ertainek aurkezturiko prestakuntza-planek, arreta berezia emanez enpresa txikiek aurkezturikoei.

EAEko plantilla	Puntuazioa
35-50	35
51-57	31
58-72	26
73-88	22
89-113	18
114-143	12
144-201	10
202-249	8
>250	5

Enpresa-taldeen kasuetan, «enpresa bakarraren» irizpideari jarraikiz, puntuazioak ez dira ematen espedienteko enpresen plantillekin erdietsitako batezbestekoen arabera; aitzitik, plantillak batzen dira, eta horiei aplikatzen zaizkie puntuazioak.

2.– Deialdi honetan ez da lehentasunezkoztat jotzen prestakuntza-ekintza generikoak eta zeharkakoak finantzatzea, salbu eta justifikatuta eta enpresaren jarduerarekin zuzenean lotuta dauden kasuetan.

3.– Aurkezturiko ekintzen lehentasunezko tratamendua baliatu ahal izateko, eta eskabide-inprimaketan biltzen den informazioa alde batera utzita, eskatzaileak egokituz jotzen duten dokumentu osagarri guztiak aurkeztu behar ditu.

4.– Ekintzei lehentasuna emateko kontuan harturiko baldintzak funtsean aldatzen badira ekintza egikaritzen den bitartean, lehentasunezko izaera dela-eta lorturiko finantzaketa gehigarria berrikusi daiteke.

II.– Kalitate- eta koherentzia-irizpideak: gehienez 65 puntu.

1.– Aurkezturiko prestakuntza-ekintzen kalitatea eta koherentzia balioesteko, alderdi hauek hartuko dira kontuan:

A) Enpresaren prestakuntza-estrategia: gehienez 55 puntu:

i) Enpresak prestakuntza-premiak aztertu eta detektatzeko azterlana egin izana, proposatutako prestakuntza-ekintzak deskribatzeko. Prestakuntza-ekintzen % 75 enpresaren berriazko prestakuntza-beharren azterketa diagnostiko batean oinarritzen dira, haren estrategiarekin bat datorren eta ingurune produktiboaren eskakizunetara egokituta dagoen gaikuntza ziurtatuz. 5 puntu.

ii) Ekintza horiek enpresaren proiektuari atxikitako prestakuntza-plan batean biltzea, zeina aldagai hauek bultzatutakoa izan baitaiteke: inbertsio estrategiko berriak, enpresa barruko inbertsioak, ekipamendu berriak, sistema berriak ezartzea, merkatu berriak zabaltzea, enplegetako balioaniztasuna eta abar. 30 puntu gehienez.

Atal honetako azken puntuazioa baiezko erantzuna jaso dezaketenean enuntziatu kopuruaren arabera zehaztuko da, dirulaguntzaren xede diren prestakuntza-jarduerekin lotuta. Balorazio-itamak hauek dira:

– Enpresaren ikuspegiari eta misioari buruzko modulu espezifikokoak daude prestakuntza-ekintzen barnean.

– Prestakuntza-ekintzak enpresa-estrategia berriak ezartzen laguntzeko diseinatu dira.

– Prestakuntza-ekintzen helburua da enpresak merkatu berrietan jarduteko duen gaitasuna hobetzea.

– Merkatu berriak irekitzearen ondorioz sortutako prestakuntza-beharrak identifikatu dira.

– Aldaketa teknologikoetara egokitu beharrak justifikatzen ditu prestakuntza-ekintzak.

– Prestakuntza-ekintzak sartuta daude langileen garapen profesionaleko planean.

– Enpresako inbertsio estrategiko berriek justifikatzen dituzte prestakuntza-ekintzak.

Baiezko erantzuna jaso duten enuntziatuen kopuruaren arabera esleituko dira puntuak, eskala honen arabera:

Baiezko enuntziatu 1: 5 puntu.

Baiezko 2 enuntziatu: 10 puntu.

Baiezko 3 enuntziatu: 14 puntu.

Baiezko 4 enuntziatu: 18 puntu.

Baiezko 5 enuntziatu: 22 puntu.

Baiezko 6 enuntziatu: 26 puntu.

Baiezko 7 enuntziatu: 30 puntu.

iii) Enpresak hausnarketa-prozesua abian jarri izana, prestakuntza-ekintza horien lehentasuna erabakitzeko. 5 puntu.

Aipatutako hausnarketa-prozesuan berariaz ebaluatzen da prestakuntza-premiak hautemateko parte-hartzea, bai eta premia horiek enpresako plantillari jakinaraztea ere. Balorazio-itemak hauek dira:

- Enpresak hainbat sail inplikatu ditu prestakuntza-premiak identifikatzeko prozesuan.
- Identifikatutako prestakuntza-lehentasunak jakinarazi dizkie enpresak langileei.

Puntuazioa baiezko erantzuna jaso duten enuntziatuen kopuruaren arabera emango da, bare-mazio-irizpide honen arabera:

Baiezko enuntziatu 1: 3 puntu.

Baiezko 2 enuntziatu: 5 puntu.

iv) Arestian aipatutako azterlanean aurkeztutako ekintza bakoitzaren deskribapena eta koka-pena: enpresarentzako kostua, hasitako edo amaitutako ekintzak, trantsizio ekologikorako, demografikorako edo digitalerako erronkekin bat datozen ekintzak. 15 puntu.

- Enpresarentzako kostua: aurkeztutako aurrekontuak esleitutako dirulaguntza-kredituaren gehieneko zenbatekoa baino % 20 gehiago dira. 5 puntu.
- Hasitako edo amaitutako ekintzak: proposatutako prestakuntza-ekintzen % 25ek, gutxienez, eskabidea aurkeztu baino lehenagoko hasiera-data dute aurreikusita. 5 puntu.
- Enpresaren digitalizazioa, trantsizio demografikoa edo energetikoa sustatzeko prestakuntza-ekintzak. 5 puntu. Horren barruan sartzen dira:

Prozesuak optimizatzeko eta produktuak hobetzeko teknologia eta tresna digitalei buruzko prestakuntza.

Enpresaren jasangarritasunera eta ingurumen-eraginaren hobekuntzara bideratutako prestakuntza-programak.

Talentua eta ezagutza kudeatzeko ekimen berritzaileak, belaunaldi-erreleboa erraztu eta erakundearen barruan sustapen profesionala sustatzeko helburua dutenak.

v) Prestakuntza-ekintzen ebaluazioa. 5 puntu, gehienez.

Parte-hartzaileen iritzia jasotzeko tresna egituratuak erabiltzea baloratuko da, bai eta azterlan kualitatiboak eta kuantitatiboak egitea ere, ebaluazio horietan jasotako datuetatik abiatuta. Balorazio-enuntziatuak hauek dira:

Galdetegi zehatzak erabiltzen dira parte-hartzaileen feedbacka jasotzeko.

Prestakuntza-ebaluazioen emaitzei buruzko azterketa kualitatiboak eta kuantitatiboak egiten dira.

Parte-hartzaileen iritzia jasotzeko tresna egituratuak erabiltzea baloratuko da, bai eta azterlan kualitatiboak eta kuantitatiboak egitea ere, ebaluazio horietan jasotako datuetatik abiatuta.

Baiezko erantzuna jaso duten enuntziatuen kopuruaren arabera emango da puntuazioa, baremazio-irizpide honen arabera:

Baiezko enuntziatu 1: 3 puntu.

Baiezko 2 enuntziatu: 5 puntu.

vi) Aurkeztutako ekintzen koherentzia orokorra: enpresaren helburuekin eta langileen prestakuntza-beharrekin bat etortzea. 10 puntu, gehienez.

– Proposatutako prestakuntza-ekintzak bat datoz enpresaren helburu estrategikoekin. Gehienez: 6 puntu.

– Proposatutako prestakuntza-ekintzak bat datoz, partzialki, enpresaren helburu estrategikoekin (soilik aurreko itema markatu ez bada). Gehienez: 4 puntu.

– Proposatutako prestakuntza-ekintzak zuzenean lotuta daude langileen lanpostuetan jarduteko beharrezkoak diren gaitasun tekniko-profesionalen eta trebetasunen garapenarekin. Gehienez: 2 puntu.

– Prestakuntza-ekintzak langileen prestakuntza-arrakala kritikoenak estaltzera bideratuta daude (enpresarentzat beharrezkoak diren prestakuntza-gabeziak betetzera bideratuta): 2 puntu.

B) Eskatzaileak proiektuan duen inplikazioa. 10 puntura bitarte.

i) Proiektua egikaritzera bideratutako baliabide propioak eta langileen inplikazioa ekintzen diseinuan eta betearazpenean. 5 puntu.

Puntuazio-irizpide hau proiektua gauzatzera eta langileek ekintzak diseinatzen eta gauzatzen parte hartzera bideratutako baliabide propioekin lotzen da. Hauek dira balorazio-itemak:

– Langileek hartu dute parte prestakuntza-premiak identifikatzen.

– Langileek hartzen dute parte prestakuntza-ekintzak ematen.

Baiezko erantzuna jaso duten enuntziatuen kopuruaren arabera esleituko dira puntuak, baremazio-irizpide honen arabera:

Baiezko enuntziatu 1: 3 puntu.

Baiezko 2 enuntziatu: 5 puntu.

ii) Efizientzia hornitzaileak hautatu eta kudeatzean. 5 puntu.

Irizpide honetan gehieneko 5 puntuak emateko, bi enuntziatu baloragarri betetzea balioetsiko da. Kontuan hartuko da enpresak prestakuntza-hornitzaileak hautatzeko definitutako parametroak aplikatzen dituen eta prestakuntza-programetako inbertsioaren itzulkinari buruzko azterketa egiten duen. Balorazio-enuntziatuak hauek dira:

– Hautaketa-prozesuan irizpide espezifikoak erabiltzen dira prestakuntza-hornitzaileak ebaluatzeko.

– Inbertsioaren itzulkinaren ebaluazioak egiten dira prestakuntza-programetarako.

Puntuazioa baremo honen arabera emango da:

Baiezko enuntziatu 1: 3 puntu.

Baiezko 2 enuntziatu: 5 puntu.

2.– Apartatu honetan gutxienez 30 puntu lortzen ez dituzten eskabideek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

III.– Aurreko egikaritze- eta betetze-maila:

Balorazio teknikoan, enpresa eskatzaileak egiaztatutako egikaritze- eta betetze-maila hartuko da kontuan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak diruz lagundutako 2021, 2022 eta 2023ko deialdien gauzatze-ehunekoaren batezbestekoa erreferentziazat hartuta. Irizpide horren arabera, guztizko puntuazio teknikoa gehienez ere 10 puntu murriztu ahal izango da, jaso daitezkeen 100 puntuekiko.

Egikaritze-maila	Puntuazioa
% 95 edo handiagoa	10
% 90 edo handiagoa eta % 95 baino txikiagoa	8
% 85 edo handiagoa eta % 90 baino txikiagoa eta berriak	6
% 80 edo handiagoa eta % 85 baino txikiagoa	4
% 75 edo handiagoa eta % 80 baino txikiagoa	2
% 70 edo handiagoa eta % 75 baino txikiagoa	0
% 65 edo handiagoa eta % 70 baino txikiagoa	-2
% 65 baino txikiagoa	-10

Era berean, balorazio tekniko horretan, hobarien estatu-sistemaren esparruan erabilgarri dagoen kredituaren aprobetxamenduari lotutako gauzatze-maila ere hartuko da kontuan. Horretarako, 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldiei dagokien kredituaren kontsumo-ehunekoaren batezbestekoa hartuko da erreferentziazat.

Egikaritze-maila	Puntuazioa
% 95 edo handiagoa	10
% 90 edo handiagoa eta % 95 baino txikiagoa	8
% 85 edo handiagoa eta % 90 baino txikiagoa eta berriak	6
% 80 edo handiagoa eta % 85 baino txikiagoa	4
% 75 edo handiagoa eta % 80 baino txikiagoa	2
% 70 edo handiagoa eta % 75 baino txikiagoa	0
% 65 edo handiagoa eta % 70 baino txikiagoa	-2
% 65 baino txikiagoa	-10

10. artikulua.– Modulu ekonomikoak.

1.– Amaitutako parte-hartzaile bakoitzeko eta prestakuntza-ordu bakoitzeko kostuaren arabera zehaztuko da prestakuntza-ekintza bakoitzaren finantzaketa, ezarritako modulu ekonomikoen sistemari jarraikiz. Modulu ekonomiko horiek prestakuntza-ekintza bakoitzari egotz dakizkiokeen kostu guztiak estaliko dituzte, zuzenekoak zein zeharkakoak.

2.– Prestakuntza-ekintza presentzialen kasuan, aurkeztutako ekimenen balorazio ekonomikoa egiteko, dagozkion modulu ekonomikoak aplikatuko dira (euro/ordu/amaitutako parte-hartzaile).

Kodea	Lanbide-familia	Kanpo prestakuntza	Barne Prestakuntza
ADG	Administrazioa eta kudeaketa	13,63	4,85
AFD	Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak	10,31	4,85
AGA	Nekazaritza	11,81	4,85
ARG	Arte grafikoak	15,34	4,85
ART	Arteak eta eskulangintzak	16,22	4,85
COM	Merkataritza eta marketina	15,17	4,85
ELE	Elektrizitatea eta elektronika	15,84	4,85
ENA	Energia eta ura	12,25	4,85
EOC	Eraikuntza eta obra zibila	11,65	4,85
FCO	Prestakuntza osagarria	11,85	4,85
FME	Fabrikazio mekanikoa	14,32	4,85
HOT	Ostalaritza eta turismoa	16,03	4,85
IEX	Erauzketa-industriak	11,20	4,85
IFC	Informatika eta komunikazioak	12,80	4,85
IMA	Instalatzeko eta mantentze-lanak	14,49	4,85
IMP	Irudi pertsonala	11,81	4,85
IMS	Irudia eta soinua	13,30	4,85
INA	Elikagaien industriak	13,52	4,85
MAM	Zurgintza, altzarigintza eta kortexogintza	11,81	4,85
MAP	Itsasoa-arrantza	11,67	4,85
QUI	Kimika	17,02	4,85
SAN	Osasungintza	12,01	4,85
SEA	Segurtasuna eta ingurumena	12,34	4,85
SSC	Zerbitzu soziokulturalak eta komunitatearentzako zerbitzuak	9,59	4,85
TCP	Ehungintza, jantzigintza, larrua	11,81	4,85
TMV	Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak	13,54	4,85
BEIZ	Beira eta zeramika	11,81	4,85

3.– Teleprestakuntza-ekintzetan, aurkeztutako prestakuntza-ekimenen balorazio ekonomikoa egiteko, 8,9 euroko modulu ekonomikoa aplikatuko da orduko eta amaitutako parte-hartzaile bakoitzeko.

4.– Prestakuntza-ekintza mistoetan, aurrez aurreko tarteari dagokion amaitutako parte-hartzaile bakoitzaren orduko kostua 2. apartatuan ezarritakoaren arabera kalkulatu da; teleprestakuntza-tarteari dagokion kostua, berriz, 3. apartatuan xedatutakoaren arabera. Ekintzaren guztizko kostua bi kostu partzialen batura izango da.

11. artikulua.– Prozedura eta ebazpena.

1.– Prozedura izapidetzeko organo eskuduna Enplegu eta Prestakuntzaren zuzendaria izango da, eta ebazteko organo eskuduna, berriz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusia.

2.– Eskabideak aurkeztu ondoren, ikusten bada nahitaezko dokumentazioa ez dela behar bezala osatu, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko. Errekerimenduan adieraziko da ezen, epe barruan egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta ebazpen espresua eman eta jakinaraziko dela, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

3.– Eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, batzorde tekniko bat osatuko da. Batzorde hori pertsona hauek osatuko dute, eta, horiek ez badaude, ordezkoeak:

Batzordeburua:

– María Aránzazu Niño Núñez, Enplegu eta Prestakuntzako zuzendaria.

Idazkaria:

– Javier Armaolea Juaristi, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.

Batzordekide titularrak:

– Eduardo Campo Guillerna, Lanerako Prestakuntza Zerbitzuko koordinatzailea.

– Juan Carlos Ibarrola Saenz de Ugarte, Lanerako Prestakuntza Zerbitzuko koordinatzailea.

Ordezko batzordekideak:

– Marta Palenzuela Saenz de Buruaga, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.

– Joseba Larrañaga Osinalde, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.

Ebaluazio-batzordea balioz eratuko da batzordeburuaz edo idazkariaz gain –edo horien ordezkoez gain–, kideen erdiak, gutxienez, bertan daudenean.

Batzordeburua ez badago, batzordekideetako bat izango da batzordeburu, arestian aipatutako hurrenkeran.

Idazkaria ez badago, batzordekideetako bat izango da batzordeburu, arestian aipatutako hurrenkeraren alderantzizkoan.

Egitura bera duela, ebaluazio-batzordeko kideen osaera aldatu egin daiteke, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiaren ebazpen bidez. Ebazpen hori Lanbideren webgunean argitaratuko da: www.lanbide.euskadi.eus.

Ebaluazio-batzordeak aurkeztutako eskabideak aztertuko ditu, eta egindako ebaluazioaren emaitza jasoko duen txostena egingo du. Organo kudeatzaileak, espedientea eta ebaluazio-batzordearen txostena ikusita, ebazpen-proposamena egingo du, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiari helaraziko dio, organo horrek baitu ebazteko eskumena.

4.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiak dagokion ebazpena emango du, eta interesdunei jakinaraziko, Lanbideren web-orrian argitaratuta (www.lanbide.euskadi.eus).

Ebazpena aldekoa bada, diruz lagunduko diren prestakuntza-ekintzak, parte-hartzaile kopurua, ordu kopurua eta finantzaketa adieraziko dira. Eskatutako laguntza ukatzen bada, horren arrazoia adieraziko da.

Interesdunak 10 eguneko epea izango du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiaren ebazpena jakinarazten denetik aurrera, lehen prestakuntza-ekintza hasi duela

adierazten duen ziurtagiria bidaltzeko, baldin eta ekintza hori ebazpena jakinarazi baino lehen hasi bada. Epe hori igarotakoan, eskabidean atzera egin duela ulertuko da.

5.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa zuzenean, bestela, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

6.– Publikotasun-printzipioa betetzeko, eta emakida-ebazpenak espresuki eta banaka jakinarazteaz gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiaren ebazpen bidez, arau honen babesean emandako dirulaguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda eta jasoko dituzten zenbatekoak.

7.– Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea gehienez 6 hilabetekoa izango da, deialdia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta, epe hori amaituta jakinarazpenik jaso ez bada, eskabidea ezetsi dela ulertuko da.

12. artikulua.– Prestakuntza-plana egikaritzea.

1.– Eskatu eta eman den xede jakinerako erabiliko da dirulaguntza, hots, prestakuntza-planak egikaritzeko.

2.– Deialdi honen bidez finantzatutako prestakuntza-planetan bilduta dauden prestakuntza-ekin-tzak erabat doakoak izango dira parte-hartzaileentzat.

3.– Ekintza edo talde bakoitza hasi baino bi egun lehenago, entitate onuradunak datu hauek jakinarazi beharko ditu ekintza estrategikoen aplikazioaren bidez: ekintza non emango den, zer entitatek emango duen, noiz eta zer ordutan izango den.

Bigarren prestakuntza-egunean beranduenez, parte-hartzaileei buruzko datuak jakinarazi beharko dizkio entitate onuradunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari.

Ikastaroa amaitu eta gehienez 30 eguneko epean, ikastaroa zein parte-hartzailek amaitu duten jakinarazi beharko du entitate onuradunak eta ikastaroari buruzko informazioa itxi.

Obligazio horiek betetzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoarekiko komunikazio guztiak ekintza estrategikoen aplikazioaren bidez egingo dira. Emandako informazioa ezingo da aldatu dagokion taldea edo ekintza amaitu eta 30 egun igaro ondoren, eta horixe izango da prestakuntza-plana egikaritu dela justifikatzeko kontuan hartu beharreko bakarra.

Jakinarazteko betebeharrak ez badira betetzen, prestakuntza-ekintza egin gabetzat hartuko da, plana egikaritu izana justifikatzearen ondorioetarako.

4.– Titularrek, aurrez aurreko ekintzetan eta ekintza birtualetan, eguneroko bertaratze-partea egin beharko dute, eta irakasleak eta parte-hartzaileak sinatu beharko dute. Presentzia gailu elektronikoen bidez kontrolatzeko sistemak ere onartuko dira, baldin eta informazio bera jasotzen badute eta haien datuak ekintza estrategikoen aplikazioan integratu badaitezke.

Teleprestakuntzako prestakuntza-ekintzen kasuan, berriz, titularrak prestatu beharko du parte-hartzaile bakoitzaren jarraipen-kontrolari buruzko dokumentazioa.

Parte-hartzaileak prestakuntza-ekintzetara egunero bertaratu direla egiaztatzeko dokumentuak zainduta daudela bermatu beharko du titularrak.

5.– Entitate onuradunak egiaztapen-diploma bat eman beharko dio aldeko ebaluazioarekin prestakuntza gainditu duen parte-hartzaile bakoitzari; diploma Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak ezarritako ereduaren arabera izango da, eta, hor, datu hauek agertuko dira gutxienez: prestakuntza-ekintzaren izena, prestakuntzaren edukiak, emateko modalitatea, iraupena eta emate-aldia. Halaber, prestakuntza aldeko ebaluaziorik gabe amaitu duten parte-hartzaileei, ikas-taroan bertaratze-ziurtagiri bat emango zaie.

Prestakuntzaren entitate arduradunak bertaratze-ziurtagiria edo, hala dagokionean, diploma, eman edo bidali beharko die parte-hartzaileei, edo prestakuntza-plataformetan eskuragai jarri, gauzatutako prestakuntza-ekintza amaitu eta gehienez bi hileko epean.

Entitate onuradunak bertaratze-diplomaren edo -ziurtagiriaren kopia sinatu bat gorde beharko du, parte-hartzailearen hartu-agiria sinatua duela, salbu eta ziurtagiriak Metapostaren bidez edo antzeko ezaugarriak dituen beste erakunde baten bidez kudeatu badira. Teleprestakuntza-modalitatearen kasuan, diploma edo ziurtagiria zuzenean deskargatu ahal izango da teleprestakuntza-plataformatik bertatik.

6.– Artikulu honen 3. apartatuan adierazten den moduan, ekimen honen bitartez programatzen diren prestakuntza-ekintzen hasieraren eta amaieraren berri eman beharko du enpresak, eta prestakuntza ekintzak eta haien jarraipena, kontrola eta ebaluazioa modu egokian garatzen direla ziurtatu beharko du, baita ematen den prestakuntza enpresaren eta langileen beharrezko ondo egokitzen zaiela ere.

Nolanahi ere, entitate onuradunak bere gain hartuko du zuzenean laguntzak behar bezala aplikatzea, eta jarraipen- eta kontrol-organismoen eginkizunen behar bezalako garapena ziurtatu beharko du.

7.– Laguntzaren emate-ebazpena jaso eta gero, prestakuntza-planaren % 50 gauzatuta eta behar besteko aurrerapenez, beste prestakuntza-ekintza batzuk sartzeko eska daiteke, baina ezingo dute inola ere gainditu finantzatutako planean onartutako ekintzen % 15, eta ez dute minoraziorik ekarriko hasierako eskabidean aintzat hartu izan balira lortuko zatekeen balorazio teknikoarekiko. Plana aldatzeko eskabide hori idatziz egingo da, eta behar bezala arrazoitu beharko da.

8.– Kalitatea ebaluatzeko galdetegiak banatuko dizkie titularrak prestakuntza-ekintzak amaitzen dituzten parte-hartzaileei, eta jasotako galdetegiak bildu eta zaindu egin beharko ditu.

Ikasleek betetako galdetegietatik lortutako batez besteko emaitza sartu beharko du entitate onuradunak bertaratzeen jarraipen-aplikazioan, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren 2009ko apirilaren 27ko Ebazpenean xedatutakoaren arabera, zeinaren bidez argitaratzen baitira enplegurako prestakuntza-ekintzen kalitatea ebaluatzeko galdetegiak (2009ko ekainaren 11ko BOE).

Entitate onuradunaren erantzukizuna da kalitate-galdetegia betetzen dela ziurtatzea. Partaideek inkesta betetzen ez badute, prestakuntza-ekintzaren likidazioa murriztuko da, 15. artikuluan adierazitako moduan.

13. artikulua.– Dirulaguntzak ordaintzea.

1.– Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da, honela:

a) Lehen ordainketa, dirulaguntzaren guztizkoaren % 50, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak lehen prestakuntza-ekintza hasi izanaren komunikazioa jasotzen duen unean, zeina hasi eta 10 egun balioduneko epean jakinarazi beharko baita.

b) Bigarren ordainketa, dirulaguntzaren gainerakoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan justifikazio-memoria aurkeztu, eta dagokion azken likidazioa onartzen denean.

Baldin ordainketa aurreratuen zenbatekoa, banaka edo aurreko ordainketekin batuta, 180.000 eurotik gorakoa bada, dirulaguntzaren onuradun den entitateak, dagokion ordainketaren aurretik, Lanbiden aurkeztu beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian zenbateko aurreratua estaltzeko besteko bermea, abala edo fidantza eratu izanaren frogagiria.

Bermeak ordainketa aurreratuaren nominala estali beharko du.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak emandako dirulaguntza entitate onuradunak horretarako adierazitako banku-kontuan ordainduko da.

Entitateak ez badu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren ordainketarik jaso, edo banku-datuak aldatu nahi baditu, hirugarrenaren datuen fitxa bete beharko du; helbide honetan egongo da eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0136810>

14. artikulua.– Dirulaguntzen justifikazioa eta likidazioa.

1.– Laguntzak prestakuntza-ekintzak amaitu dituzten parte-hartzaileen eta egindako eskola-ordu eraginkorren arabera likidatuko dira, deialdi honetan ezarritako eta onartutako modulu ekonomikoak aintzat hartuta.

Likidazioak ez du inola ere gaitutako hasiera batean onartutako dirulaguntzaren zenbatekoa.

Prestakuntza gauzatu ondoren, dirulaguntza zehazteko, aurrez aurreko ekintzetan, ikasle batek prestakuntza amaitu duela ulertuko da, baldin eta prestakuntza-ekintzaren % 75eko iraupena bete badu. Halaber, teleprestakuntzako modalitatean emandako prestakuntza-ekintzetan, ikasleak prestakuntza amaitu duela ulertuko da baldin eta prestakuntza-proiektuan ezarritako ikaskuntzaren jarraipena egiteko aldizkako kontrolen ehuneko 75 egin baditu, konexio-orduak gorabehera.

2.– Edozein motatako prestakuntza-ekintzaren likidazioa honela kalkulatu da: modulu ekonomikoa bider prestakuntza-ekintza hori amaitu duten ikasleen kopurua.

3.– Dirulaguntzaren erakunde onuradunak prestakuntza-ekintzaren likidazio ekonomikoa aurkeztu beharko dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari, ekintza estrategikoen aplikazio telematikoen bidez.

4.– Planaren likidazio osoa egiteko, digitalki sinatutako likidazio-eskabidea bidali beharko dute entitate onuradunek, 2027ko uztailaren 31 baino lehen, ekintza estrategikoen aplikazioaren bidez, eskabide horretan jasotzen diren datuak egiaztatu eta baliozkotu ondoren.

a) Egindako prestakuntza-ekintza guztien amaierako ziurtagiria (betetze-ziurtagiria); aurretik horien justifikazio-memoria ekonomikoak aurkeztu behar dira.

b) Planaren amaiera-ziurtagiria, egindako prestakuntza-ekintzak banakatuta eta deialdi honetan ezarritako mugetara egokituta.

c) Hala badagokio, diruz lagundutako jarduera osorik edo zati batean finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuei buruzko adierazpena, horretan zenbatekoa eta jatorria adierazita, edo bestela, halakorik ez dagoela dioen adierazpena. Kontuan hartu behar da 18. artikuluan xedatutakoaren arabera deialdi honen babesean emandako dirulaguntza bateraezina dela beste edozein laguntza edo dirulaguntzarekin.

d) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honetara aurkeztu gabeko ekintzak direla-eta estatu-sisteman egindako hobariena, EAEko lantokietara atxikitako langileei dagozkien ekintzak betiere.

e) Prestakuntza Planaren likidazioa egitean, eta diruz lagundutako proiektuari esleli dakioken behin betiko zenbatekoa kalkulatzeko aldera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak kontuan hartuko du EAEko langileei dagokien 2026. urteko estatuko ereduaren enpresa bakoitzerako ezarritako hobari gisa emateko gehieneko kopurua, eta enpresari etengabeko prestakuntzarako 2026ko ekitaldi honetan eta langile horientzat hobari gisa benetan eman zaion diru-kopurua, eta plan bakoitzari dagokion azken dirulaguntzatik deskontatuko da estatu-sisteman kontsumitu gabeko kreditu-kopurua.

f) Hornitzaileen aukeraketak ekonomia- eta eraginkortasun-irizpideei erantzun diela egiaztatzen duten dokumentuak, baita gutxienez hiru eskaintza eskatzeko betebeharra bete izana egiaztatzen duen agiria ere, baldin eta kontratuen zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitako kontratu txikien zenbatekoa gainditzen bada.

5.– Agiriok ez badira aurkezten horretarako ezarritako epeetan, eskumena duen organoak 15 egun baliaduneko epe luzaezina emango dio onuradunari agiri horiek aurkez ditzan. Azken epe horretan justifikaziorik aurkeztu ezean, itzulketa-prozedura hasiko da.

6.– Aurkeztu dituen egikaritze-ziurtagirietan informazioa behar bezala beteta duten parte-hartzaileak besterik ez dira hartuko kontuan, baldin eta parte-hartzaileen zerrendan badaude.

7.– Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, azken likidazioaren ebazpena emango da, eta onuradunari jakinaraziko zaie ebazpen hori.

Egindako likidazioa aurreratutako kopurua baino txikiagoa bada, horri dagokion itzulketa-espediente izapidetuko da, deialdi honetako 20. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

15. artikulua.– Laguntza-eskubidea eskuratzeko eta eskubide horri eusteko eskakizunak.

Laguntza jasotzeko eskubidea eskuratu eta mantentzeak berarekin dakar onuradunek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean aurreikusitako betebeharrak eta beste hauek betetzea:

– Aurreko deialdietan jasotako kopurua ordaindu izana, dirua itzultzeko eskatu zaionean.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari jakinaraztea enpresa eskatzailea edo enpresa parte-hartzaileak legez, hitzarmenez edo beste edozein xedapenez behartuta ote dauden diru-baliabideak eskaintzera prestakuntza egiteko. Kasu horretan, laguntzak ez du berekin ekarriko horretarako eskainiko diren diru-baliabideak murriztu beharrik.

– Laguntza jaso duen prestakuntza-jarduera deialdi honetako eta EAEko Etengabeko Prestakuntzako Lanbide arteko Akordio oinarri, baldintza eta eskakizun formal eta materialen arabera egitea. Kontzeptu horregatik esleitutako funtsak ezingo dira erabili berau ematera bultzatu duten helburuetarako ez beste batzuetarako.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari egiaztatzea jarduera egin dela eta laguntza jasotzeko edo baliatzeko eskakizunak eta baldintzak bete direla. Horretarako, dagozkion egiaztagiria, prestakuntza-ekintzari buruz eskatuko zaizkien datu eta agiriak aurkeztuko dituzte prestakuntza-ekintza horiek amaitu ondoren; horrela behar bezala egiaztatu ahal izango da ekin-tza egin dela, emandako finantzaketa erabili dela eta lortutako emaitzen ebaluazioa egin dela.

– Argitalpenetan edo onarturiko ekimenaren bestelako komunikabide eta hedabideetan, baita material didaktiko guztietan eta sortuko diren beste mota batzuetakoetan ere, jasotzea prestakuntzako ekintza estrategikoei laguntzeko 2026ko deialdian eginiko ekintzak direla eta Lanbidek finantzatuak/kofinantzatuak direla. Argitalpen horietan Eusko Jaurlaritzaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua Publikoaren logotipoak erabiliko dira.

– Hamazazpigarren oinarrian ezarritako kontrol- eta jarraipen-jarduketak onartzea.

– Haren kontabilitatearen kontu bereizian edo berariazko epigrafean prestakuntza-ekintzak egikaritzeko gastu guztiak identifikatzea, baita «enplegurako lanbide-heziketa» izena edo epigrafearekin aplikatzen diren hobariak ere.

– Enpresak eraldatzen, bat egiten edo zatitzen direnean, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari.

– Enpresak behar diren bitartekoak jarri beharko ditu 12.8 artikuluan adierazitako inkesta betetzen laguntzeko, eta inkesta benetan betetzeko ardura izango du.

16. artikulua.– Jarraipena eta kontrola.

1.– Laguntzen onuradunek erakunde hauek egingo dituzten egiaztapen- eta kontrol-jardunak onartuko dituzte: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak, Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Europako entitate eskudunek. Horretarako, baimena emango dute, batetik, lokaletan eta instalazioetan sartzeko, eta bestetik, parte-hartzaileekin, Langileen Lege Ordezkaritzako kideekin eta elkarrizketatzea beharrezko ikusten den gainerako pertsonekin harremanetan jartzeko.

2.– Onuradunak, kontrol-jarduera horiek onartzeko betebeharraren barruan, hau bete beharko du:

– Ekimen finantzatua egikaritu izanari edo haren bideragarritasunari buruzko informazio oro ematea, baita jarraipena egiteko eskatzen zaizkion dokumentuak betetzea eta igortzea ere; dena dela, 10 eguneko epea izango du egiten diren errekerimenduei erantzuteko. Errekerimendu horiek estatu-ereduaren barruan hobaria jaso duten ekintzei buruzkoak ere izan daitezke.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari jakinaraztea beste erakunde batzuei dirulaguntzak edo laguntzak eskatu dizkiela edo lortu dituela, deialdi honetan diruz lagundutako ekintza guztiei edo batzuei eragiten badiete.

3.– Auditorien eta Ikuskaritzen Urteko Plan bat ezarriko da, deialdian ezarritako eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko eta diruz lagundutako ekintzak benetan zer baldintzatan egikaritu diren aztertzeko. Plan horretan sartuko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak arriskuen analisietatik ateratako estatistika-irizpideen arabera hautatzen dituen espedienteak. Ikuskatze Planean bilduko dira, halaber, behar bezala identifikatutako pertsonen egindako eta sinatutako salaketetatik eratorritako jarduketak.

17. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Onuradunaren betebeharrak dira, deialdi honen artikuluetan aurreikusitakoez gain, oro har, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan eta Enplegurako Lanbide Heziketaren Sistema arautzen duen araudian ezarritakoak.

2.– Bereziki, hau bete beharko dute laguntzen onuradunek:

Ondoren aipatzen diren entitateen egiaztatze- eta kontrol-jarduerak onartu: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Ekono-

mia, Lan eta Enplegu Saila eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiarenak. Halaber, entitate horiei aukera eman behako diete lokal eta instalazioetara sartzeko, eta prestakuntza-ekintzetako parte-hartzai-leekin eta elkarrizketatu nahi dituzten beste pertsonekin harremana izateko.

Diruz lagundutako jardueraren xedea edo nondik norakoa nabarmen aldatzen duen gertaera oro jakinarazi, bai eta dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako edozein inguruabar aldatuko balitz ere.

3.– Entitate onuradunaren ordezkariak edo ahaldunak sinatu beharko du, dirulaguntzaren eskaizaille gisa, datu pertsonalei dagokien konpromisoa, datu horien tratamenduaren arduradun diren aldetik. Konpromiso hori nahitaez onartu beharko dute deialdiaren entitate onuradun guztiek, arlo hori arautzen duen indarreko legerian ezarritako baldintzen arabera.

Datu pertsonalen babesaren arloan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak bi xedapen hauen arabera jokatu du: Datuak Babesteko (EB) 2016/679 Erregelamendua eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa. Biltzen diren datu pertsonalak «Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueraren barruan egongo dira. Jarduera horren arduraduna Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa da, eta jardueraren helburua da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin zerikusia duten dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea, bai eta iruzurrari jazarzea eta datuak estatistiketan erabiltzea ere. Eskuratzen diren datuak beharrezkoak dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari emandako botere publikoak gauzatzeko eta lege-betebeharrak betetzeko, eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoei komunikatu ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eta informazioaren tratamendua mugatzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte tratamenduaren arduradunaren aurrean, datuen babesaren arloko eskubideak baliatzeko prozeduraren bidez, zeina www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/ helbidean baitago argitaratuta.

Hemen kontsulta daiteke datu-babesari buruzko informazio osagarri eta zehatza: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-cap2-eu.shtml>

4.– Laguntzak jaso dituzten entitate onuradunek kofinantzatutako gastuei buruzko egiaztagiriz guztiak edo jatorrizko agirien kopia ziurtatuak gordeko dituzte, oro har onartutako datu-euskarrietan datozenak, 2032ko abenduaren 31ra arte.

Agiri horiek jatorrizkoetan edo jatorrizkoen kopia konpultsatuetan gordeko dira, edo oro har onartutako datu-euskarrietan, bereziki jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan soilik dauden agiriak.

18. artikulua.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren finantzaketatik sortutako komunikazio-betebeharrak.

Diruz lagundutako jarduera guztietan eta horien ondorio diren ekintzetan, entitateek berariaz eman beharko dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikotik jasotzen duten finantzaketaren berri, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren komunikazio-eskuliburuan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte horretarako (prestakuntzako ekintzen aplikazioaren bidez jarriko da eskuliburu hori entitate onuradunen eskura).

19. artikulua.– Dirulaguntza aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan ezer aldatuz gero, gerta liteke emandako dirulaguntza ere aldatzea; nolahi ere, eutsi egingo zaie deialdi honetan dirulaguntzen onuradun

izateko ezarritako gutxieneko eskakizunei eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 25. artikuluan jasotakoei. Baldintzen aldaketa horren ondorioz itzuli behar badira bidegabe jasotako kopuruak, itzultzeko prozedura hasiko da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikularekin bat etorriz.

20. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan prestakuntza-ekintzak egiteko ematen diren dirulaguntzak bateraezinak dira administrazio honek edo beste administrazio edo entitate publiko edo pribatu batzuek kontzeptu eta xede beragatik emandako beste edozein motatako dirulaguntza edo laguntza guztiekin.

21. artikulua.– Dirulaguntzak itzultzea.

1.– Ezingo da dirulaguntza ordaintzeko exijitu, eta, hala badagokio, jasotako kopuruak osorik edo partzialki itzuli beharko dira eta dirulaguntzen arloan aplikatzen den atzerapen-interesa eskatuko da dirulaguntza ordaintzen den unetik, baldin eta laguntzen entitate onuradunek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan oro har aurreikusitako betebeharrak eta deialdi honetan espezifikoki aurreikusitako baldintzak urratu badituzte, edo 20/2023 Legearen 36. artikuluan aurreikusitako itzulketa-kausa batean badaude. Bereziki, hauetakoren bat:

Jarduera egin izana eta laguntza emateko edo baliatzeko baldintza eta betekizunak bete izana justifikatu beharra ez betetzea.

Ezinbestean bete beharreko baldintzak bete gabe jaso izana laguntza.

Jarraipen- eta kontrol-jarduerak ukatzea edo oztopatzea.

Diruz lagundutako ekintzak egikaritzeko baldintzei buruz errealitatearekin bat ez datozen datuak ematea.

Deialdi honen 16. artikuluan jasotako komunikazio- eta hedapen-betebeharrak ez betetzea.

Deialdi honetan zehaztutako beste edozein betebeharrak, baldintza edo eskakizun ez betetzea.

2.– Irizpide hauen arabera zehaztuko da balizko ez-betetzeen maila:

Erabateko ez-betetzea: dirulaguntza emateko xedea edo hori justifikatzeko betebeharra erabat ez betetzea, emandako dirulaguntzaren % 100 itzultzeko arrazoia izango da.

Ez-betetze partziala: dirulaguntza emateko xedea edo hori justifikatzeko betebeharra partzialki betetzen ez bada, emandako dirulaguntza aldatu edo partzialki itzuli beharko da.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiak abiaraziko du itzulketta-prozedura, eta halaxe jakinaraziko dio enpresa edo entitate onuradunari ebazpen baten bidez, ez-betetzea zer gertaerak edo gertaerek eragin duten adieraziko dio, eta eskatuko dio hamabost eguneko epean egoki irizitako alegazioak edo egiaztatgiriak aurkezteko.

4.– Alegazioak aurkeztu ondoren edo alegazio horiek egiteko epea igaro ondoren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiak ebazpena emango du. Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez hamabi hilabeteko epean ebatzi beharko da.

5.– Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean ondorioztatzen bada ez-betetzerekin bat izan dela, bertan adieraziko da dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela eta, hala badagokio, dagozkion kopuruak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari itzuli behar zaizkiola. Itzultzeko

epea bi hilabetekoa izango da, ebazpena jakinarazten denetik aurrera. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

6.– Borondatezko aldiaren itzulketarik egiten ez bada, dagozkion zenbatekoak premiamendu-bidez berreskuratzeko izapideak hasiko dira, bidezkoak diren gainerako ekintzak eragotzi gabe, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira dagozkien lege-ondorioetarako, eta, erantzukizunei dagokienez, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 46. artikuluan zehaztutako araubideari jarraituko zaio.

22. artikulua.– Lehiari buruzko Europako araudia.

1.– Agindu honetan jasotako laguntzek hauetan xedatutakoa bete beharko dute: Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko (EB) 2023/2831 Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa. Kalifikazio horren ondorioz, enpresa bakar bati «minimis» laguntzetan ezin zaizkio gutxira 300.000 euro baino gehiago eman hiru urteko edozein alditan. Muga hori aplikatzeko, kontuan hartu beharko da nola definitzen duen «enpresa bakarra» erregelamendu horren 2.2 artikulua.

2.– Laguntza eskatzen duenak aurreko hiru urteetan jasotako minimis laguntzei buruzko aitortpena egin beharko du, ziurtatzeko minimis laguntza berriak ez duela gainditzen aipatu erregelamenduan ezarritako gehieneko muga.

3.– Informazio hori egiaztatzeko, erakundearen legezko ordezkariak erantzukizunpeko adierazpen bat egingo du (erantzukizunpeko adierazpena eskaera-orrian jasota dago). Nolanahi ere, entitate eskatzaileak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak eskuratzeko moduan eduki beharko ditu adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla frogatzen duten agiriak.

4.– Deialdi honetan araututako dirulaguntzak emateko ebazpenetan, berariaz aipatuko da emandako dirulaguntzak «minimis» izaera duela.

23. artikulua.– Aplikatu beharreko arauak.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean aurreikusitako dirulaguntzen araubide juridikoa aplikatu behar zaio laguntza-programa honi.

Abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 17. artikuluan ezarritako erregelamenduzko xedapena ematen ez den bitartean, bermeen araubideari dekretu hau aplikatuko zaio, lege horren kontra ez doan guztian: 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura emandako dirulaguntzen bermeen eta itzulketaren araubide orokorra arautzen duena eta kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileen betekizunak, araubidea eta betebeharrak ezartzen dituena.

Prestakuntzaren arloan, deialdi honetan aurreikusi ez den horretan, hauek aplikatuko dira: 30/2015 Legea, irailaren 9koa, Lan-arloko enplegurako lanbide-heziketaren sistema arautzen duena; 694/2017 Errege Dekretua, uztailaren 3koa, zeinaren bitartez garatzen baita 30/2015 Legea, irailaren 9koa; TMS/368/2019 Agindua, martxoaren 28koa, zeinaren bidez garatzen baita 694/2017 Errege Dekretua, uztailaren 3koa, Lanbide Heziketa Antolatu eta Integratzeko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoaren aurka ez doan horretan.

24. artikulua.– Deialdi honetako ehunekoen kalkulua.

Deialdi honetako ehunekoren batean zenbaki dezimalik egonez gero, zati osoa baino ez da hartuko kontuan, dezimalak alde batera utzita.